

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****MOREDA ARABAKO UDALA****Behin betiko onestea 2021eko aurrekontu orokorra**

Bat etorri otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuenak, 15. artikuluan xedatutakoarekin, eta ez denez inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu 2021eko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onartuta geratzen da. Hona laburpena, kapituluka:

GASTUEN EGOERA

KAPITULUA	ZENBATEKOA (EURO)
I. Langile gastuak	108.700
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	100.922,36
III. Finantza gastuak	200
IV. Transferentzia arruntak	24.191
V. Kreditu orokorra	0
VI. Inbertsio errealak	660.873,78
IX Finantza-pasiboak	0
Gastuen egoera guztira	894.887,14 euro

DIRU SARREREN EGOERA

KAPITULUA	ZENBATEKOA (EURO)
I. Zuzeneko zergak	78.900
II. Zeharkako zergak	3.500
III. Tasak eta bestelako diru sarrerak	25.784
IV. Transferentzia arruntak:	119.065,89
V. Ondare bidezko diru sarrerak	7.181,72
VII. Kapital transferentziak	660.455,53
Diru sarrerak, guztira	894.887,14 euro

Batera, eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikuluan eta 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri, erakunde honetako lanpostuen zerrenda ematen da argitaratu eranskinean.

Udalaren aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Moreda Araba, 2021eko otsailaren 18a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL BUJANDA FERNÁNDEZ

I. eranskina

1. Karrerako funtzionarioak

1.1. Gaikuntza nazionalekoak.

Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea.

Administrazio egoera: bitartekoa.

Lanbide kategoria: teknikaria.

Dedikazioa: ehuneko 50, lekora eta Moreda Arabako udalen elkarte.

Taldea: A1

Maila: 24

Berariazko osagarria: 9.846,20 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4; derrigortasun data: 2017ko abenduaren 31.

2. Lan kontratupeko langileak

2.1. Lan kontratu mugagabeak.

Lanpostuaren izena: administrari laguntzailea.

Administrazio egoera: jardunean.

Lanbide kategoria: administraria.

Dedikazioa: ehuneko 57,14

Taldea: D

Maila: 18

Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2017ko abenduaren 31.

Lanpostuaren izena: garbitzailea.

Administrazio egoera: jardunean.

Lanbide kategoria: zerbitzu bereziak.

Dedikazioa: ehuneko 30.

Taldea: E

Maila: 13

Lanpostuaren izena: zerbitzu publikoetako behargina.

Administrazio egoera: jardunean.

Lanbide kategoria: zerbitzu bereziak.

Dedikazioa: ehuneko 100.

Taldea: E

Maila: 13

II. eranskina

Bat etorri Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 75.5 artikuluan xedatutakoarekin, osorik argitaratzen da udal korporazioko kideen kalte ordainen eta bilkuretara joateen gaineko erabakia:

Ordainsaria alkatea osoko bilkuretara joateagatik: 240 euro.

Ordainsaria zinegotziak osoko bilkuretara joateagatik: 36 euro.